

## ERRENIEGA IKASTETXE PUBLIKOAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

**XEDEA:** Gure izatearen arrazoa: ikastetxea zertarako dagoen adierazten du.

Erreniega ikastetxearen xedea, **euskera eta euskal kultura** ardatza izanik, gaur egungo gizartean haur **guztiei** beren **garapen integrala** ahalbidetzea da, giro positiboan **eskola eta familiak elkarlanean**.

**IKUSPEGIA:** Jomuga edo nahia adierazten du, ikastetxearen etorkizuneko irudi asmoa.

- Eskola **inklusiboa** izatea, hau da, ikasle bakoitzaren **gaitasunen garapen** handiena lortzen duena .
- Ikasle eleanitzak izan daitezen, **euskara, gaztelania eta ingelesan konpetentziak** garatzen dituen.
- **Haur taldea eta familiekin elkarlanean** ari den eskola.
- **Metodologia eta teknologia berrietan** oinarritzen den hezkuntza eskeintzen duena.
- **Irakasleen prestakuntza eta berrikuntza** bultzatzen dituen eskola.
- **Gizartearen espektatibei eta hezkuntzaren joerei** erantzuten dien eskola.
- **Etengabeko hobekuntza** ahalbidetzen duen eskola, sormena erabiliz ikuspegi berriak sortzeko edo aldatzeko gai dena.

**BALIOAK:** Eskola komunitatea gidatzen duten printzipioak dira.

- Jokabide **parte-hartzailea eta elkarlanekoa**.
- **Sentikortasuna** eta **elkartasuna** berdinen arteko eta ingurune sozialeko kideen arteko harremanak orekatuak ahalbidetuz.
- **Ekimena eta sormena** ikuspegi berriak sortzeko eta arazoak gainditzeko.
- **Berdintasuna**, guztiak ezberdinak garela kontuan hartuta.
- **Lan-taldeen** eraginkortasuna etengabeko hobekuntza bultzatuz.

# eskola egutegia

## IRAILA septiembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

## URRIA octubre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

## AZAROA noviembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

## ABENDUA diciembre

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

## URTARRILA enero

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

## OTSAILA febrero

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28					

## MARTXOA marzo

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

## APIRILA apirila

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

## MAIATZA mayo

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

## EKAINA junio

As	Ar	Az	Os	Or	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

## eskola ordutegia

	SARRERA	IRTEERA
Goiza	9	12'50
Arratsaldea	14'50	16'30
Asteazkenak	9	13
Iraila/ Ekaina	9	13

**Puntueltasuna** funtsezkoa da, guztion onerako.

## sarrera-irteeretako ordutegia

**Zuzen jokatzeko badugu eta arau hauek betetzen baditugu, gerta daitezkeen egoera arriskutsuak saihestuko ditugu.**

1. **Eskola eremuko sarrera-irteerak:** eskola eremuan sartu eta ateratzeko kiroldegiaren aurrean dagoen atea ala beste ikastetxeen ondoan honetarako gaitu diren ateak erabiliko dira.
2. **Ikasleriaren sarrera eskola barrura:** ikasleak zikloaren arabera dagokien atetik sartuko dira, ate bakoitzean dagoen txartela adierazten duen arabera.
3. **Idazkaritzan aferak eta sarrera-irteera ordutegitik kanpo ikasleak bilatzera edo ekartzera:** hesian dauden ateak itxita daudenez, biribilgunean dagoen ATE NAGUSItik sartuko zarete.
4. **Jantoki orduan ikasleen bila bazatozte:** hesian dauden ateak itxita daudenez, biribilgunean dagoen eskolako ATE NAGUSItik sartuko zarete. Zuen seme-alabak jantokian gelditzen ez badira, ordutegi horretan **patioan ez egoteko** eskatzen dizuegu.
5. **Garraio zerbitzuaren funtzionamendu egokia** bermatzeko, oso garrantzitsua da autobusen geltokia errespetatzea. Zuen seme-alaben bila kotxez etortzekotan **biribilgunean ez aparkatzea** arren eskatzen dizuegu.
6. Biribilguneko ate nagusia **ikasle garraiatuek bakarrik** erabiliko dute eskolako irteera orduetan, ikasle garraiatu guztiak autobusetan igotzen diren bitartean.

## antolamendua

### ZUZENDARITZA TALDEA

<b>Zuzendaria</b>	Marijose Oraa
<b>Ikasketaburua</b>	Idoia Imaz
<b>Idazkaria</b>	Itziar Saiz

Haur Hezkuntza	A	B
3 urte	Ana Ayesa	Fermiña Oiaga
4 urte	Arantxa Tamayo	Mertxe Ansorena
5 urte	Igone Ezkurra	Amai Marcilla Rakel López

Haur Hezkuntzako laguntza: Itziar Saiz, Aitziber Larrea

Lehen Hezkuntza	A	B
1º	Isabel Asiain	Mikel Elizaga
2º	Juana Fresneda	Josune Arangoa
3º	Samuel Guerrero	Ana Etxabarri
4º	Isabel Garakotxea	Petri Rodriguez
5º	Mikel Rincón	Leonor Calvo
6º	Inma Mainz	Joana Reguero

### ESPEZIALISTAK

**Inglesa:** Arantza Delgado, Amaia Espinosa, Ainhoa Osinaga

**Música:** Oihane Gulina

**Gorputz heziketa:** Miguel Uriarte

**Erljioa:** Ana Iribarren

**Logopedia:** Imanol González

**Pedagogia terapeutikoa:** Helena Barrena

**Orientatzailea:** Marian Etxague

### IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK

**Atezainak:** Gorka Olleta, Esther Rodríguez

**Administraria:** Marta Hekneby

**Zaintzaileak:** Armando Zudaire, Asier Larrinaga

### GURASO ELKARTEA

“HOTS GURASOAK”

# harremanak

**IDAZKARITZAREN ORDUTEGIA: 9etatik 13:30era**

## HITZORDUA ESKATZEKO

- **TUTOREAREKIN**  
Ikasleen bitartez tutoreari **ohar** bat bidali.  
3., 4., 5. eta 6. mailakoek ikasleen **agendaren** bitartez eginen dute.
- **ESPEZIALISTEKIN**  
Tutorearen bitartez.
- **ZUZENDARITZAKOEKIN**  
Idazkaritzan ordua eskatu.

**IKE – IRADOKIZUN, KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK:** idazkaritzan jaso dezakezuen inprimakia bete eta eskolako postontzian utzita (idazkaritzako atearen ondoan dagoena) edota [ipzizur@educacion.navarra.es](mailto:ipzizur@educacion.navarra.es) helbide elektronikora mezu bat bidalita bidera ditzakezue. Edozein modutan, nahitaezkoa da IKEa egiten duenaren izena jartzea.

Erantzuna, gehienez jota, aste beteko epean emango dugu.

**MEZUAK:** ikastetxetik banatuko diren oharrak posta elektronikoaren bidez helaraziko dizkizuegu. Noizbehinka, paperean banatuko dizkizuegu zuen seme-alaba gazteenaren bitartez. Ikastetxeko funtzionamenduari buruz informazio gehiago izateko ikastetxeko web orrialdea kontsulta dezakezue.

## GURASO ELKARTEA:



<http://hotsgurasoakgaz.blogspot.com/es/>

[hotsgurasoak@gmail.com](mailto:hotsgurasoak@gmail.com)

**Bilerak:** bi astetan behin, ostiraletan 15:00etan, guraso elkarteko gelan.

**Bazkide kuota:** 20€/urtean familiako.

## bizikidetza

Proiektu hau eskolako partaide guztien harremanak hobetzeko eta eskolan giro on bat lortzeko asmoz garatu da.

Bizikidetza planaren barruan jarduera hauek egiten dira:

- Tutoretza plana.
- Familia eta ikasleen harrera plana.
- Gurasoen tailerra.
- Guraso ordezkariak.
- Berdintasun programa Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetako ikasleei zuzendua.
- Osasunaren aldeko proiektua Zizurko Osasun Etxea, Hots Gurasoak eta eskolaren artean garatua.
- Elkartasunezko proiektuak: Arropa bilketa Glorr Fundazioarekin eta Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpaina.
- Bitartekotza plana: bitartekoak.

### **BITARTEKOTZA PROIEKTUA**

Joan den ikasturtean 5. mailako irakasleria zein ikasleriak bitartekarien formakuntza saioetan parte hartu zuten. Ikasturte honetan, 6. mailako sei ikasle gatazken bitartekariak dira ikastetxean: **Peio Iriarte, Nahia Rodriguez, Aimar Remesar, Lorea Etxekonanea, Iker Martínez y Irune Ortiz**. Ikasle hauen eginkizun nagusia, beraien laguntza eskatzen dutenean, ikasleen arteko gatazkak moldatzen laguntzea da, hartutako konpromiso eta akordioen bitartez alde guztiak irabazle direlarik.

Eskolako batzar-gelan **ADOSTOKIA** dago, non bitartekoek gatazkak dituzten ikaskideei horiek konpontzen laguntzen diete. Txoko hau erabiltzen duten bakoitzean bitartekoek akta bat jasotzen dute, arazoa zein izan den eta parte hartzaileek zein nolako irtenbidea adostu dute bilduz.

Gainera, eskolara ikasle berriak etortzen direnean, bitartekariak harrera egin eta eskola erakusten diete.

Geletan “belarri-ahoa” txokoa dugu. Gatazkan inplikaturako aldeek, entzunez eta hitz eginez, konponketa bilatzen dute elkarrizketa gatazkak konpontzeko tresna bihurtuz. Horrelakoetan, bitartekotza irakasleak egiten du.

## guraso ordezkariak

Ikastetxearen Elkarbizitza Planaren barruan, prebentzio mailan garatutako Tutoretza Planaren arlo batek, familiak eta ikastetxearen arteko harremanak sendotzea du helburu. Gurasoen ordezkariaren figurak helburu hau betetzen lagunduko du.

**Aukeraketa:** gelako 1.go guraso bileran.

### EGINKIZUNAK

- Irakasle, guraso, guraso elkarte eta zuzendaritza taldearen arteko lotura.
- Gela bakoitzeko gurasoen partaidetza ikastetxeko ekintzetan koordinatzea.
- Bi motatako eginkizunak izango dira:
  - o Gelakoak: gelako aferak (argazkiak, erosketak..), gelako ardurak (taldeari dagozkionak, besterik ez), gelako jarduerak.
  - o Eskolakoak: festak, matrikula kanpaina, futbito eta pilota txapelketa...
- Guraso Elkarateak bere identitatea mantentzen du baita ekintza batzuen ardura eta antolamendua.
- Guraso elkarte eta zuzendaritza taldearekin bileretan parte hartzea.

### JARDUERAK

**Haur hezkuntza:** Olentzero.

**Lehen hezkuntzako 1. eta 2. maila:** KORRIKA eta San Fermin ikastolako futbol txapelketa.

**Lehen hezkuntzako 3. eta 4. maila:** Inauteriak.

**Lehen hezkuntzako 5. eta 6. maila:** Ikasturte bukaerako jaia.

#### **Hots Gurasoak elkarateak, eskolarekin elkarlanean:**

Eskola Kontseilua

Eskolaz kanpoko ekintzak

“Etxetik hasi behar delako” kanpaina

Sortzengo jaia

Auzolan

Festak: Gaztain festa, Olentzero, Santa Ageda, Inauteriak, Korrika, Hots Gurasoak ikasturte bukaerako jaia (larunbata)

Guraso eskola

Euskaraz Mintza!

Teknologia berriak: arbel digitalak

“Gurre jolastokia eraikitzen” proiektua

## zerbitzuak

### GARRAIOA

Garraio zerbitzua “Camino de Santiago” eta “Catalina de Foix” ikastetxeekin batera antolatuta dago. Gure eskolako **121** ikaslek erabiltzen dute garraioa.

**Zerbitzu honen irakasle arduradunak:** Igone Ezkurra, Helena Barrena, Itziar Saiz, Imanol González y Joana Reguero.

### GARRAIO ZERBITZUAREN ERABILERA

- Autobusen geltokia eta ordutegia ezagutu ondoren, garrantzitsua da geltokian garaiz egotea bai haurrak eramateko garaian baita jasotzeko garaian ere.
- Autobus-zaintzaileak eserleku bat finkatuko dio garraiatutako haur bakoitzari adina, herria ... irizpideen arabera.
- Egun zehatz batean edo batzuetan ez badu autobusa erabili behar zaintzaileari eta tutoreari jakinaraziko diezue zuek idatzitako ohartxo baten bidez.
- Haurren bila etortzen bazarete, ate nagusian (errotondan) jasoko dituzue. Autobuseraino laguntzen dion irakasleari eta autobuseko zaintzaileari jakinaraziko diozuelarik.
- Irakasle arduradunen lana ez oztopatzearen, zuen seme-alabak hartu ondoren errotondan ez gelditzea erregutzen dizuegu.
- Errotondan autoa uztea debekaturik dago. Autobusek lekua behar dute haurrak arriskurik gabe barrura sar daitezen.
- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1.mailako ikaslegoak iraila eta urria bitartean ikastetxean eskuratutako identifikatzeko txartela eramango du.

### GOIZ GOIZEKO SARRERA

“Hots Gurasoak” Elkarateak ikastetxeko familiei goiz goizeko sarrera zerbitzua eskaintzen die. Haurrak Jangarria-Ausolan enpresako Amaia zaindariaren ardurapean egoten dira.

**Lekua:** 001 gela, beheko solairuan (sarbidea Talluntze Parkeko biribilgunetik).

**Ordutegia:** 7.30etik 9.00etara.

Hautzaindegiaren erabilerak Guraso Elkartean bazkidetzea ekartzen du.

**Kuotak:** 26 € hilabete eta ikasleko. Bigarren seme-alabak 16 € eta hirugarrenak doan.

**Kuota soziala:** arazo ekonomikoak dituzten familientzat udaletxeko Gizarte Zerbitzuaren txostena eskuratuta.

**Noiz-behinkako erabilera:** 5€/eguneko (ordainketa zaintzaileari erabilera egunean).



## JANTOKIA

Bazkaria ekartzen duen enpresa: Ausolan-Jangarria.

Aurten ere bi txanda egongo dira: **1go txanda:** 3 urtetik 3. mailara.

**2. txanda:** 4., 5. eta 6. mailak.

Enpresaren arduraduna: Jone Lazkano      Irakasle-arduraduna: Ana Iribarren

Administraria: Marta Hekneby

### ➤ Jantokiko kuotak:

Iraila: 88 €/hilabetea (egunero) eta 78 €/hilabetea (asteazkenik gabe).

Ekaina: bazkalkide kopurua jakin arte ezin dugu kuota zehaztu.

Urritik maiatzara bitartekoa: bazkalkide kopurua jakin arte ezin ditugu kuotak zehaztu. Iazko kuotak hauek izan ziren:

Eguneroko finkoak: 95,70 €/hilabetea.

Asteazkenik gabeko finkoak: 75,90 €/hilabetea.

Eguneroko garraiatuak: 60,10 €/hilabetea.

Asteazkenik gabeko garraiatuak: 40,25 €/hilabetea.

Etendun finkoak: 6 €/eguna.

Noizbehinkakoak: 7 €/eguna

- Hilabete guztietan **kuota berdina** ordaintzen da, kuota bakoitzari dagokion egun guztiak 8 hilabeteetan banatzen baitira, hilabete luzeak eta motzak orekatuz.
- **Abenduaren 22a, osteguna, ASTEAZKEN bat bezala izango da**, arratsaldez klaserik ez dagoelako. Beraz, Asteazkenik gabeko kuotetan egun hau egun hau **EZ** da alde aurretik kobratzen. Kuota kalkulatzeko ez da egun hau zenbatu. Asteazkenetan gelditzen ez den ikasle batek abenduaren 19an jantokia erabili behar badu **Idazkaritzan jakinarazi** beharko du eta eguna abenduko kuotarekin batera kobratuko zaio.
- Hasieratik bazkalkide finkoak ez diren ikasleek ez dute beraien gelakideekin lekua ziurtatuta izango, haurren ziurtasuna eta zerbitzuaren antolakuntza dela eta. Hala ere, beraien gelakideekin egotea saiatuko gara.

### ➤ Ordainagiriak:

- Kuota hurrengo hilabetearen hasieran helbideratuko dizuegu.
- Helbideratzeekin arazoak badituzue, hilabetearen bukaeran Idazkaritzan jakinarazi (kuotak helbideratu baino lehen).
- **Atzera botatako errezibo**en arduradunak itzulketa horrek dakarren gastuak ere ordaindu beharko ditu (**1'50€**).
- Ikasleari baja ematen ahal izango zaio, **erreziboak behin eta berriz atzera** botatzen baditu.

- **Diru itzulketak:** janariari dagokion diru kopurua itzuliko da, honako kasuetan:
  - Kanpaldi eta txangoetara joaten direnean. Maiatzeko erreziboan bakoitzari dagokiona itzuliko zaio.
  - Idazkaritzan alde aurretik jakinarazitako 5 egun lektibo jarraian hutsegiten dutenean (4 egun asteazkenik gabeko kuotetan).
  
- **Hutsegite eta bertaratzeen kontrola:**  
IDAZKARITZAN **9'30a baino lehenago** deitu edo abisatu behar duzue.
  - FINKOAK: Egunen batean ikaslea jantokira ez badator.
  - NOIZBEHINKAKOAK: Egun solteetan gelditzen direnean. Gainera, Haur Hezkuntzakoek irakasleari ohartxo baten bidez jakinarazi behar diozue.

Jantokiari buruzko **EDOZEIN ALDAKETA, IDAZKARITZAN jakinarazi behar da**, zerbitzuaren aurreikuspen egokia egin ahal izateko eta ikasleen zaintza bermatzeko.

- **Asteazkenetan gelditzen direnentzat:**
  - BAIMENA idatzita ekarri behar dute bazkaldu ondoren etxera bakarrik joaten daitezkenak eta ikaslearen bila gurasoak ez diren beste norbait etorri behar duenean.
  - Orduetgia: 14etatik 15'15era. PUNTUALITATEA eskatzen da.
  - Haien bila etortzen zaretenean, **nahitaez zaintzaileari esan behar diozue**.
  - Jakin ezazue atarian egon behar duzuela haien zain. Inolaz ere ez zaitetze sartu jantokira edota pasabidera haien bila.
  
- **Jarraipena:** zaintzaileekin hitz egiteko aukera duzue alde aurretik Idazkaritzan hitzordua eskatuta.
  
- **Ausolan-Jangarriaren "Hazi" hezkuntza proiektua**, jantokia erabiltzen duten ikasle zein familiei zuzendua. Gure ikastetxeak elikatu, hezitu, ongi pasatu eta jakinarazi helburua duen proiektu honen barruan proposatutako ekintzetan parte hartzen du. Informazio gehiago: <http://jangarria.com/>

### JANTOKIKO ARAUAK

A- Ondoren adierazten direnak **zehapena** izango dute:

- 1- Ikaskide edota jantokiko langileengan edozein begirune falta adieraztea. Hutsegite hau **larria** izango da.
- 2- Nork bere burua edo besteena arriskuan jartzen duen edozein portaera desegokia, bai bazkaltzeko tartean baita jantokiko patio garaian ere. Hutsegite hau **larria** izango da.
- 3- Oinarrizkoak diren zenbait arau ez betetzea, hau da:
  - Doinu egokian hitz egitea (ez oihukatu, jantokian ez abestu)
  - Pasabideetan eta jantokian korrikarik ez egitea.

- Jantokitik baimenik gabe alde egitea.  
Hutsegitea nolakoa den arabera, hutsegite **arina edo larria** izan daiteke<sup>(\*)</sup>.

4- Bazkaltzeko orduan, desegokiak diren hainbat jokabide adieraztea:

- Janaria jaurtitzea edo botatzea.
- Janariarekin jolastea.
- Nahita zikintzea.

Hutsegitea nolakoa den arabera, hutsegite **arina edo larria** izan daiteke<sup>(\*)</sup>.

**\* 3 hutsegite arin, hutsegite larri bat** izango dira.

Hutsegiteak gurasoei puntualki jakinaraziko zaie, kasuan-kasuan hartutako erabakia adieraziz.

B- Hartutako **erabaki** motak:

- Patiorik gabe gelditzea.
- Jantokian gizarte lanak: adinaren arabera laguntzen (jasotzen lagundu, aulkiak jaso, erratza pasa...).
- Txandaz aldatzea.
- Mahaiak banatzerako orduan taldekatze malgua.
- Kasu larrietan jantoki zerbitzurik gabe gelditzea.

## testu liburuen doakotasun programa

2016-2017 ikasturtean Lehen Hezkuntzako maila guztiak programa barruan daude.

Programa honen ezaugarriak ondorengo hauek dira:

- Mailegu sistema bat da, familiak ez dira liburuen jabeak. Liburu hauek ikastetxearenak dira.
- Diru kopuru hau SUNTSIKORRA EZ DEN materiala erosteko da, hots, material iraunkorra erosteko, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan ezik. Beraz, LHko 3. mailatik aurrera lan koadernoak eta ikasleek bertan idatzi behar dituzten liburuak programa honetatik kanpo geldituko dira. Guztia erosteko diru kopurua nahikoa izango ez balitz, familiei jakinarazi eta helbideratuko zaie.
- Ikasturtearen zehar ikasle bakoitzak liburu berdinak erabiliko ditu eta hauek kode baten bitartez eta ikaslearen izena duen pegatina batekin identifikatuak egongo dira.
- Liburu hauetan ezin da ez idatzi ezta azpimarratu ere. Ikasle bakoitza erabiltzen dituen liburuen arduraduna izango da eta galdu edo hondatuko balitu, ikasle horren familiak ordaindu beharko ditu liburu berriak.
- Ikaslearen errua izango ez balitz, ardura Hezkuntza Departamentuak hartuko du.
- **Ikasturte bukaeran liburu guztiak ikastetxeari itzuli beharko zaizkio.**

## Erreniega ikastetxeko proiektuak

Gure ikastetxean aspalditik apustua egin dugu berrikuntza pedagogikoaren alde eta badaramagu denbora luzea proiektuak eta planak osatzen eta garatzen. Hona hemen eskolan ditugunak:

### **AHOZKOTASUNA LANTZEKO ETA HOBETZEKO PLANA**

Euskara gure ikastetxearen hizkuntza izanik, gelako esparrutik ateratzea eta harremanetarako hizkuntza bihurtzea helburutzat hartzen dugu. Horretarako gelako programazioan ahozkotasuna txertatzeaz gain zenbait proiektu garatzen ditugu.

#### **Euskaraz Mintza!**

Urtero bezala, Euskaraz Mintza proiektua martxan jarriko dugu Erreniega IPn. Ikasturtean zehar monitoreak atsedenaldirik ikasleekin jolasten du, hizkuntza erregistro ez formalak erabiliz. Zuek, guraso zareten aldetik, euskararekiko duzuen jarrerak garrantzi handia du zuen seme-alabek euskararekiko ahal den motibazio positiboena lor dezaten.

#### **Bertsolaritza**

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek aukera dute astean behin, ostegunetan hain zuzen ere, ekintza honetan parte hartzeko. Saio hau, hizkuntza arloaren saio kopuruan txertatzen da.

Bertsolaritzako irakaslearen eskutik, gure ikasleek aukera dute euskararen kultur ondare bat ezagutzeko: bertsolari historikoak, bertso ezagunak, doinuak. Honetarako, Nafarroako Bertsolaritza Elkarteak sortutako liburua erabiltzen dute.

#### **Irratia**

Lehen Hezkuntzako maila guztiak irrati saioak prestatzen dituzte. Bertan, ahozko testu mota desberdinak lantzen dituzte. Emanaldien berri ematen da eskola osoan. Zuzen entzuteaz gain posible da etxetik entzutea web orriaren bidez.

#### **Irakurketa plana**

Liburutegiaren erabilpena martxan dago proiektu honen barruan. Liburuaren mailegua programa informatiko baten bitartez egiten da. Ikasle guztiak erabiltzen dute zerbitzu hau astero. Horretarako ikasle bakoitzak bere txartela dauka. Proiektu honen barruan ondorengo jarduerak sartzen dira:

- Idazleak eskolan
- Kontu-kontari
- Liburu azoka
- Maleta ibiltaria

## **METODOLOGIA BERRIAK**

### **Ikasteko kooperatu / Kooperatzen ikastea**

Talde kooperatiboek gela inklusiboa errealitate bihurtzen dute, talde kohesioa lortuz eta ikasleen arteko konpetibitatea erregulatuz. Oinarrizko gaitasunak (komunikatiboak, sozialak...) garatzeaz gain ikasleak balioetan (begirunea, elkartasuna, elkarri laguntzea...) hezitzen ditugu, ikasleen autoestima, erantzunkizuna, autonomia, ziurtasuna eta espektatibak hobetuz eta trebetasun sozialak lantzen dituzten neurrian, harremanak hobetuz.

Talde kooperatiboen bidez guztion parte hartzea bermatzen da eta guztien arteko elkar- ikaskuntza bultzatzen da. Metodologia honekin gelesko giroa eta bizikidetzak hobetu egiten dira.

Erreniegako klaustru osoa metodologia honetan prestakuntza jasotzen du. Eskolako bi irakasle, Ana Etxabarrik eta Juana Fresnedak, ikaskuntza kooperatiboaren ezarpenerako laguntza eta aholkua ematen dute.

### **Tutorizazio programa**

Maila bakoitza, adinaren arabera banatzen diren konpartimentu hermetikoak direla kontuan hartuz, Erreniegan maila bakoitzari beste adin bateko haur talde bat egokitzen zaio momentu ezberdinetan elkarrekin dezaten: Gaztain festa zeinetan ikasle helduagoek gaztainak zuritzen laguntzen duten, irakur zaletasuna landuz ikasle helduenak gazteagoi ipuinak irakurri eta haiek egindako liburuak oparitzen, patioan egiten diren tailerretan, kontzertu eta antzerkiak ikusle eta antzezle paperak trukatu. Ikasle batek eskeintzen duen laguntzak, ikaskuntza aukera aberatsak sortzen ditu, irakastea baita ikasteko modurik onena.

### **Proiektuen astea**

Testu libururik gabeko astea bultzatzearen erabakia erreflexio askoren ondoren etorri da eta hiru zutabeetan oinarritzen da: irakasle eta ikasleen papera, konpetentzien garapena eta gela bitzikidetzaren hobekuntza.

Hiru aspektu hauetan eragitea lortzen badugu eta honi zirrara sortarazten digun lan egiteko modua gehitzen badiogu, badakigu eskolan haurrak bere ikaskuntzen protagonista izango direla.

Testu liburuak utziz eta tutorearen papera laguntzaile edo bitartekariarena izanik besteak beste, interesa duten gai, egoera edo proposamenek, eginaz ikastera eramango gaituen ikaskuntza/irakaskuntza prosesan oinarritzearen hipotesian datza. ikasturte honetan esperientzia hau berriro martxan jarriko dugu eta proiektuetan oinarritutako metodologian sakontzen jarrituko dugu.

### **“Gure jolastokia eraikiz” proiektua**

Bi urte daramatzagu “gure jolastokia eraikiz” proiektuan lanean. Proiektu hau ikaskuntza-zerbitzuan kokatzen da, ikaskuntza eta konpromiso soziala lotzen duen metodologia da. Honen bitartez, Erreniegako komunitateak eskola ordutegitik kanpo plaza publikoa den eskolako patioaren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzen du. Bizikidetzaren eta elkarlana sustatzearekin zerikusia dituzten hezkuntza behar berrien aurrean gaude. Hezkuntza helburuak ezin dira funtzio instrumentaletan soilik oinarritu.

Espazio orok, bere diseinutik, materialetatik eta antolaketatik, pertsonak egiten duten erabilera baldintzatzen du; era berean, baita giza harremanak eta bizikidetzaren ere. Ikasturte honetan, lanean jarraituko dugu intentsitate desberdinetako mugimenduzko ekintzak ahalbidetzen dituzten eraikin berriak, elementu naturalak, edo material eta textura desberdinetako materialak gure patioaren hornitzaileak izateko.

### **TEKNOLOGIA BERRIAK**

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik aurrera gela guztietan arbela digital interaktiboak daude. Osotara eskolan 7 ditugu. Irakasleria arbel hauek erabiltzeko formakuntza tekniko eta didaktikoa jasotzen ari da. Gela guztietan ordenagailu bana dago INTERNETen konektatzeko aukera dutelarik.

Informatika gelan 20 ordenagailu daude.

Geletara eramateko ordenagailu eramangarri eta proiektorea daukagu.

Liburutegian bi ordenagailu eta proiektore finko bat dago.

Auzolanen bidez megafonia sistema lortu genuen. Sarrera-irteeretan erabilera egunerokoa da eta proiektu hau garatzen jarraituko dugu ahalik eta etekin gehien ateratzearren.

Ikus-entzunezko gela dugu home-zinema ekipoarekin.

### **Blogak**

Jasotako formazioa martxan jarri eta ia maila bakoitzeko blog bat sortu genuen. 2016-17 ikasturtean, blogak hezkuntza baliabide bezala erabiltzea bultzatuko dugu; interneten erabilera eraginkorra eta ziurra eta elkarlana bultzatzea helburu izanik. Ezagutzak ebaluatzeko baliabidea, hizkuntza idatzia hobetzeko aukera emateaz gain, sormena piztu eta zentzu kritikoa garatzetuen duena.

Teknologia berrien eta blogen erabilera bultzatu eta honetan laguntzeko ardura Itziar Saiz-ek izango du.

## IGERIKETA

Zizur Nagusiko 2016/2017 ikasturteko igeriketa kanpaina, Udal eta Nafarroako Igeriketa Elkartearen arteko komenio batean oinarrituta dago. Udalak, instalazioak erabiltzen uzten du eta Igeriketa Elkartek kanpaina hau antolatzeko eta koordinatzeko konpromisoa hartzen du, beharrezkoak diren teknikariak jarriz kanpaina honek ongi funtziona dezan.

Kanpaina hau, Lehen hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleentzat da eta eskolako ordutegi barruan egiten den derrigorrezko jarduera da.

Ikasleak igerilekura astean behin joan dira. Bertara hamar minutu lehenago agertuko dira dagokien irakaslearekin. Uretan ordu erdi egonen dira bi monitoreek jarraipena egingo dutelarik.

Ekintza hau burutu ahal izateko, bainujantzia, txankletak, txanoa eta esku oihala ekarri behar dute. Ezin badute igeriketa egin tutoreari ziurtagiria emango diote.

Kanpaina **urriaren lehenengo asteazkenean** hasi eta **maiatzaren azken ostiralean** bukatuko da, ikasturteko 28 saio izanik. Horrela, bi denboralditan ikasle gehienek gutxienez funtsezko maila izatea lortuko dutelarik.

Ikasketa, mailetan banatu eta "Itsas zaldi" koloretan islatuko da.

## ESKI KANPAINA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak antolatzen duen kanpaina honetan 6. mailako ikasleek parte hartzen dute. Ikasleak aste oso bat (igandetik ostiralera) eskiatzera joaten dira tutoreekin eta Gorputz Heziketako irakaslearekin. Aste honetan, goizez Ipar-eskia ikasten dute eta arratsaldean jarduera desberdinak egiteko aukera dute. Kirol mota bat ikasteaz gain, elkarbizitza bultzatzea, Nafarroako eskualde bat ezagutzea eta euskararen erabilpena indartzea helburutzat hartzen dira.

## ENGLISH WEEK

Murgiltze programa bat da non ingelesezko komunikazioa bultzatzen da. Nafar gobernuko Hezkuntza Departamentuak sustatzen du eta CNAI "Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas" delakoaren eskuetan dago programaren garapena. Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikaslegoari zuzenduta dago. Aurreko ikasturtea Erreniega eskolak lehenengo aldia parte hartu zuela izan zen. Aurten parte hartzeko eskaera berriro egingo dugu, baremo bat pasa ondoren ebatzen dena.



## eskolaz kanpoko jarduerak

Hots Gurasoak Guraso Elkarateak antolatzen ditu, eskolako zuzendaritzarekin elkarlanean. Jarduerak antolatzerako orduan kontuan hartzen dugu udaleko zerbitzuek antolatzen dituzten jarduerak ez oztopatzea.

Jantoki ordutegian antolatutako jarduerak (eskaintza adinaren arabera):

- Euskal dantza.
- Zirkua.
- Poliekintza.
- Erlajazioa jolas bat da.
- Gorputza Astindu.
- Xake.
- Trikitixa eta pandero eskola.
- Mekanografia, ekainean LHko 5. eta 6. mailako ikasleentzat.

Arratsaldeko jarduerak:

- Trikitixa eta pandero eskola.
- Informatika lantegia.
- CNAI-rekin ingeleseko klaseak.
- Robotika (BERRIA). Ikasturte honetan Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte eskaintzen da. Programazioa egiten ikasteko lantegi dibertigarriak dira, adimena (sormena, logika, emozionala....), lankidetzeta eta kooperazioa garatzeko.

## euskara en Erreniega

Gure ikastetxean euskaraz irakasteaz gain, euskal kulturaren zabaltzaileak sentitzen gara. Honek esan nahi du euskal ohiturak, tradizioak, kankak, festak eta abar luze bat gure ikasleei transmititzen dizkiegula eta hauekin batera gure kulturarekiko maitasuna eta begirunea. Baina jakin badakigu ez dela aski eskolan egiten dugun ahalegin guztiarekin eta horregatik garrantzitsua da familian eta gizartean ere ahalegintzea bide honetan.

Egia da, euskara berreskuratzeko hezkuntza dela baliabide garrantzitsuena baina familiak eta gizarteak ere zeresan handia daukate haurren euskalduntze prozesuan.

### **Hizkuntz transmisioa familiaren bidez**

Familiaren jarrera baikorrak garrantzi handia du haurraren. Beraz, gurasoek euskara erabiltzeko aukera zabaldu behar diete haurrei.

Zer egin dezakete familiek?

- Haurrek jakin behar dute eskolan erabiltzen duten hizkuntza, familiak errespetatu eta maite duela.
- Gurasoek beren seme-alabak animatu eta bultzatu behar dituzte eskola barruan eta eskolatik kanpo ere euskara erabil dezaten elkarren arteko harremanetan. Senideen edo lagunen artean euskaraz hitz egitea lortzen dutenek, hizkuntzaren kalitatea eta erraztasuna hobetzen dute.
- Behin eta berriro euskaraz hitz egin behar dutela errepikatzea ez da nahikoa, zerbait gehiago eskaini behar zaie:
  - Oinarrizko hiztegia erabiliz: aita, ama, kaixo, agur, polita...
  - Euskaraz antolaturiko ekitaldietara seme-alabak eramanez: antzerkiak, zinemak, kirol ekintzak, Nafarroa oinez, Sortzen-en festa.....
  - Gurasoek euskara ikasiz. "ETXETIK HASI BEHAR DELAKO" kanpainan parte har dezakezue.
  - Seme-alabek lortutako emaitzak gorai patuz eta egindako lanari arreta jarri.
  - Eskola, euskara, irakasleak eta gelako lanari buruz iritzi baikorrak eman.
  - Geletan antolatzen diren ekintzetan eta irteeretan ikasleen partaidetza posible eginez.
  - Eskolak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartuz.
  - Seme-alabentzat euskaraz ikastea aukeratu duzue, etxe guztietan euskarazko liburuak edukitzea garrantzitsua da.

### **Haur erdaldunen euskalduntzea**

Gure eskolak haur erdaldunak euskalduntzeko murgiltze sistema erabiltzen du, hau da, eskolan sartzen diren unetik euskara izango da komunikatzeko hizkuntza eta gure

helbururik garrantzitsuena euskara bai gela barruan irakasleekin, bai haien artean harremanetarako erabiltzea izango da. Horretarako eskolak ikasketak burutzeko haurren beharrezkoak diren gaitasunak eta ahalmenak garatuko ditu. Baina oso garrantzitsuak dira ere ikasleek euskararekiko garatzen dituzten jarrera eta jokaera baikorrak eta horretarako, eskolak jarduera desberdinak antolatzen ohi ditu.

### **Euskara gizartean**

Ezin gara konformatu gure seme-alabak euskaraz eskolatzearekin, euskaraz murgiltzeko esparrua zabaldu behar diegu eta horretarako gizarteak eskaintzen dituen aukera guztiez baliatu behar gara:

- Komunikabideak euskeraz ikustea eta entzutea; hau da, etxeetan euskararen presentzia edukitzea.
- Guraso Elkarateak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz izaten dira, ikasleek ordutegitik kanpo ere euskaraz jarrai dezaten
- Zizur Nagusiko Udalak ere ekintza ugari euskeraz antolatzen ditu haurrentzat urtean zehar.
- Ludoteka ere aukera ona da haurrak elkarrekin jolastuz, euskara erabil dezaten. Urtero Ludotekari buruz informazio zehatza iritsiko zaizue eskolatik.
- Musika Eskolan ere ikasketak euskaraz egiteko aukera zabaltzen ari da.
- Udalak antolatzen dituen kirol ekintzetan ere, pilota, saskibaloia... eskatzen den neurrian ahalegintzen dira euskaraz eskaintzen.
- Zenbat eta lehenago hasi hizkuntza batekin gero eta hobeago ikasiko dute haurrek bigarren hizkuntza hori.

### **OHARRA**

- Eskolako logoarekin kamisetak 14 eurotan (4 urtetik 14 urte bitarteko neurriak) eta biserak 6 eurotan (haur eta heldu neurriak) idazkaritzan eros ditzakezue.
- Galdutako arropa atezaintzan biltzen da. Arropa izenarekin markatzea komenigarria da.